
PRENTSA OHARRA

NATALIA SUAREZEN 'JADE' ERAKUSKETA IKUSGAI BILBAOARTEN

Margolanez osaturiko erakusketa hau urriaren 14ra arte bisitatu ahal izango da udal zentroko erakusketa aretoan

(Bilbon, 2022ko irailaren 16an). BilbaoArte Fundazioak, Bilboko Udalaren ekoizpen zentroak, Natalia Suárez Ortiz de Zarateren «*JADE*» erakusketaren atea irekiko ditu. 2021ean ekoizpen-zentroan beka jaso zuen artistak, azken urtean egindako olio-pinturen eta tinta japoniarreko marrazkien aukeraketa batekin beteko du arte erakusketa aretoa.

«*JADE*» gauzatzeko, Bilbon finkatutako artista arabarrak BilbaoArten egoiliar izan zenetik gaur arte ekoiztutako lanen artean aukeraketa egin du. Izenburuak izen bereko arrokaren kolore berde bereizgarria aipatzen du, azken aldian artistaren tonalitate-paletan oso presente egon dena. Era berean, izenburu hutsala ere bada, ikusleak piezei buruz egiten duen interpretazioarekin osatzeko askatasuna har dezan.

Oraingo honetan, aretoa hiru espazio irekietan banatzen da, aretoaren berezko arkitektura ezkututzen ez dutenak. Obra nagusia formatu ertaineko triptikoa da, aurten bertan egina, eta errepikapena eta gizakien itxurak nabarmentzen dira bertan. Nataliak onartu du seriean lan egiten duen lehen aldia dela, olio-pintura lehertzeko denboren ondorioz, aldi berean hainbat mihise garatzeko joera duelako.

Margolanen artean Ertibil bekarekin Japonian egindako lanetako batzuk daude, tintaz egindako marrazkiekin osatzen direnak, paperetan eta pintzel japoniarrekin eginak. «*JADE*»-n ikusgai dauden obra guztietan, pintura garaikidearen berezko aldarrikapena dago, medio bereko hizkuntzatik abiatuta, eta ez kontzienteki egindako ekintza gisa, baizik eta barne-munduaren adierazpen gisa.

Erakusketarekin batera doan katalogoak Nataliak azken urteotan zirriborro-koaderno gisa egindako margolan eta marrazki ugari biltzen ditu, eta Mayi Martiarena artistaren poesia bat ere bai, ex profeso egina.

Erakusketa aretoa astelehenetik ostiralera bisitatu ahal izango da 17:30etatik 20:30etara, urriaren 14ra arte. Jaiegunak eta asteburuak, itxita.

ARTISTARI BURUZ

Natalia Suárez Ortiz de Zárate (Vitoria-Gasteiz, 1994) Bilbon bizi da. Pinturan eta marrazkian oinarritzen da bere lana, nahiz eta arte eszenikoen mundua ere arakatzen duen Tripak konpainiaren barruan. Azken urteotan banakako erakusketak egin ditu, besteak beste, honako hauek: *“AI, PUNA”* (Rekalde Aretoa, Bilbo) eta *“DIENTE DE LECHE”* (Montehermoso, Vitoria-Gasteiz). Era berean, hainbat erakusketa kolektibotan parte hartu du; besteak beste: *“Confi”* Aire Galerian (Bilbo), *“Estudiotik at”* Tabakaleran (Donostia) edo XVI AMP *“Markak”* Okela Sormen Lantegian (Bilbo).

→ INFORMAZIO GEHIAGO:

- Informazio gehiago nahi izanez gero, zerbitzura deitu daiteke, 94 415 50 97 telefonoen bidez edota mezu elektronikoa idatzi, bilbaoarte@bilbao.eus helbidera.

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

NOTA DE PRENSA

NATALIA SUÁREZ EXPONE 'JADE' EN BILBAOARTE

Esta muestra de pintura podrá visitarse hasta el 14 de octubre en la sala de exposiciones del centro municipal

(Bilbao, 16 de septiembre de 2022). La Fundación BilbaoArte Fundazioa, centro de producción del Ayuntamiento de Bilbao, abre las puertas de la exposición «*JADE*» de Natalia Suárez Ortiz de Zárate. La artista becada en el centro de producción durante 2021, llenará la sala de exposiciones del centro de arte con una selección de pinturas al óleo y dibujos en tinta japonesa realizados en el último año.

Para la materialización de «*JADE*», la artista alavesa asentada en Bilbao realiza una labor de selección entre las obras producidas desde su residencia en BilbaoArte hasta la fecha. El título hace alusión al característico color verde de la roca del mismo nombre, que últimamente ha estado muy presente en la paleta de tonalidades de la artista. Es también un título intencionadamente trivial para que el espectador se tome la libertad de completarlo con su propia interpretación de las piezas.

En esta ocasión la sala se divide en tres espacios abiertos que no ocultan la arquitectura propia de la sala. La obra central es un tríptico de medio formato realizado este mismo año, en el que destacan la repetición y sus personajes. Natalia admite que es la primera vez que trabaja en serie porque, a consecuencia de los tiempos de secado de la pintura al óleo, tiende a desarrollar varios lienzos simultáneamente.

Entre las pinturas se encuentran algunas de las obras realizadas con la beca Ertibil en Japón, que se complementan con dibujos a tinta, realizados en papeles y con pinceles japoneses. En todas las obras que se exhiben en «*JADE*» está presente la reivindicación propia de la pintura contemporánea desde el lenguaje del mismo medio, no como acto consciente si no como expresión del mundo interior.

El catálogo que acompaña la exposición recoge una amplia variedad de pinturas y dibujos realizados en los últimos años por Natalia, a modo de cuaderno de bocetos, e incluye una poesía de la artista Mayi Martiarena realizada ex profeso.

La sala de exposiciones podrá visitarse de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 horas, hasta el 14 de octubre. Festivos y fines de semana, cerrado.

SOBRE LA ARTISTA

Natalia Suárez Ortiz de Zárate (Vitoria-Gasteiz, 1994) vive en Bilbao. Su trabajo se centra en la pintura y el dibujo, aunque también explora el mundo de las artes escénicas dentro de la compañía Tripak. En los últimos años ha realizado las exposiciones individuales “*AI, PUNA*” en Sala Rekalde (Bilbao) y “*DIENTE DE LECHE*” (Montehermoso, Vitoria-Gasteiz). También ha participado en varias exposiciones colectivas; “*Confi*” en Galería Aire (Bilbao), “*Estudiotik at*” en Tabakalera (Donosti) o XVI AMP “*Markak*” en Okela Sormen Lantegia (Bilbao), entre otras.

→ **MÁS INFORMACIÓN:**

- Las personas que deseen ampliar la información también pueden contactar con el servicio llamando por teléfono al 94 415 50 97 o escribiendo un email a bilbaoarte@bilbao.eus .

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)